



Indultuen suak



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Iritsi zen udako solstizioa, eta berriz ere suak piztu ziren Herrialde Katalanetako lurralde osoan zehar. Aurten, COVID-19ak behartutako iazko etenaren ondoren, inoiz baino gauza gehiago zeuden erretzeko. Alarma-egoerak, etxeratze aginduak, maskarak, isunak, eta epaileek garai nahasi hauek aprobeztatuta eman dizkiguten epaiak.

2017ko urriaren 1eko autodeterminazio-erreferendumentik eratorritako 3.300 errepresaliatu baino gehiagoren zerrendak zabaltzen jarraitzen du, eta auzietako batzuk espetxeratze zigorrek ebatzen hasi dira. Adrián Sas, Fernando Garrobo eta Marcel Vivet bide triste bat irekitzeko arriskuan daude: ustezko bidelagun batzuen ekintzei esker askatasuna galtzen duten ekintzaile independentistena.

Lehenik eta behin, Generalitateko zerbitzu juridikoak akusazio partikular gisa aurkeztu direlako beren aurkako prozesu judizialean, ekintzaileak salatu zituzten Esquadra Mossoen ordezkarigisa. Bigarrenik, ziega batean amaitu badezakete, jada desagertutako Convergència i Unió (CiU) 2015ean PPren Zigor Kodearen erreformari emandako bultzadari eta babesari esker delako. Erreforma hark gogortu egin zituen desordena publikoekin lotutako delituentzako zigorrak.

Irudi horrek talka egiten du *Procés*-eko bederatzi lider sozial eta politikoen espetxeko irteeraren argazkiarekin, Pe-

Rubenek, Angelak eta
Aturem el Parlament
ekintzagatik zigortutako
beste sei pertsonak
bost urte baino gehiago
daramatzate beren
indultu eskaeraren
ebazpenaren zain

dro Sánchezen gobernuaren indultuak –partzialak eta itzulgarriak– jaso berri. Albiste ona da Kataluniako politikarientzat eta jendartearentzat zalantzarik gabe, baita beraientzat zein maite dituztenentzat ere. Baina Jordi Turull ikustean –adibidez– graziatzko neurria jasota Lledoners atzean uzten, ezin dut ekidin Angelarekin edo Rubenekin oroitzea.

Ekainaren 15ean hamar urte bete ziren 2011n milaka lagunek Kataluniako Parlamentuaren inguruan protesta egin zutenetik, Artur Masen gobernuak zerbitzu publikoetan egindako murrizketen aurka. M-15 mugimenduaren une gorena zen, eta botereak efektu-kolpe bat behar zuen mobilizazioa geldiarazteko. Hemeretzi pertsona epaitu zituzten, eta Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbi-

tu egin zituen, epaiketan Turull bezalako diputatuek auzipetuen aurka deklaratu bazuten ere.

Baina Fiskaltzak eta akusazioek, tartean Kataluniako Gobernuak berak, helegitea aurkeztu zuten. Azkenerako auzipetuetako zortziri hiru urteko kartzela zigorra ezarri zien Espainiako Auzitegi Gorenak, estatuko goi erakundeen aurkako delitu bat egotzita. Erabakia Manuel Marchenak sinatu zuen, urte batzuk geroago *Procés*-eko preso politikoak zigortuko zituen magistratu berak. Eta bere argudio nagusietako bat akusatuek sustatu zuten ustezko "indarkeria giroa" ("*violencia ambiental*") izan zen, gerora *Procés*-aren aurkako epaia idazteko erabili zuena. Norik pentsatuko zuen orduan betiko konbergenteek, lege eta ordenaren defendatzaile amorratuek, beren botika probatuko zutenik?

Bada, Rubenek, Angelak eta *Aturem el Parlament* ekintzagatik zigortutako beste sei pertsonak bost urte baino gehiago daramatzate beren indultu eskaeraren ebazpenaren zain –zorionez, espetxeratzea geldiarazten du eskaerak bien bitartean–. Auzitegi Konstituzionalak auzipetuen helegiteak atzera bota zituen joan den hilabetean, gertaeretatik hamar urtera, eta orain Estrasburgoko Auzitegiko bidea libre dute. Baina beren bizitzek hari batetik zintzilik jarraitzen dute, demokrazia eragozten duten legeak erraunts bihurtuta ikustea amesten dugun bitartean. ●